



### 3 UDALBATZARRA

#### Garajeak alokairuan jartzeko pauso berria eman du Udalak

Asteartean ohiko Udalbatzarrara burutu zen. Hainbat gai jorratu ziren, besteak beste, Okendoko, Tajamarreko eta Beko Errotako 131 garaje alokairuan ateratzeko pleguak onartu zirela jakinarazi zuen Udalak. Era berean, Atsotabar erresidentziako eskumen aldaketa bultzatzeko konpromisoa hartu zuen, baita ITA gardentasuneko emaitzak hobetzeko ere.



Iñaki Arruti, Iñaki Martínez de Luna, Jasone Mendizabal eta Pablo Suberbiola aritu ziren Villa Mirentxuko mahai inguruan.

### 4-5 BURUNTZALDEA

#### Euskara erabiltzeko aitzakiarik ez Buruntzaldean

Mintzalagun ekimena, Mintzanet, Banaiz Bagara elkar-tea edo Zilegi eskolak. Buruntzaldean euskara mintzamenean trebatzeko tresna dezente ditugu. Olatz Urdanpilleta Lasarte-Oriako Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegiako arduradunarekin eta Petra Elser Banaiz Bagara Elkarteko kidearekin hitz egin dugu Mintzalagun ekimena eta Banaiz Bagara elkar-tea martxan duen Euskaraplus ekimenari buruz gehiago jakiteko.



## Euskararen etorkizuna eztabaidagai

### 'Berrikusi eta berrikasi' testuaren ondorioak mahai gainean jarri ziren

Euskaltzaletasunaren eta euskararen etorkizuna izan ziren aztergai azteazkenean Jasone Mendizabal eta Iñaki Martínez de Luna Topalabeko kideen eta Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko kidearen eskutik.

**T**takun KEk eta Euskaltzaileen Topaguneak antolatuta, Topalab taldeak idatzitako 'Berrikusi eta berrikusi' testua aztergai izan zen Villa Mirentxun. Ekitaldira hurbildu zirenek Jasone Mendizabal, Iñaki Martínez de Luna eta Pablo Suberbiolaren iritziak entzun eta haien kezka eta galderak plazaratu ahal izan zituzten. Larunbatean izango den Topa Egunaren aurrekari izan zen ekimena.

Mahai-inguruarekin hasi aurretik, Iñaki Arrutik Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko teknikariak aurkezpenak egin zituen eta hiru mahai kideek euskaltzaletasunarekin duten lotura estua azpimarratu zuen.

#### Testuaren azalpena

Jarraian, Jasone Mendizabalek testuaren laburpena egin zuen ondorioetako puntuak azalduz. Hauek Hiztun komunitate emantzipatua; Epe luzerako plangintza eta Hizkuntza politika; Lege-babesa, baliabideak eta erreferentziak; Egitura eta autoritatea; diskurtso multzo koherentea; Arnasgune politikoa alderdien aldetik eta motibazio eta bizi-indarra dira.

"Euskal hiztun kopurua bere topera iritsi dela eta euskaltzaletasunak aro berri bat behar du".

#### Solasaldia

Pablo Suberbiolak dokumentuko lau puntu nabarmendu zituen. Hauei buruz bere iritzia emateaz

gain, Topalabeko kideei galderak plazaratu zizkien.

Hala nola, hiztun komunitateari begira edo gizarte osoari begira lan egin behar den, euskararen normalizazioa berdintasunaren eskutik datorren, euskara arnasgune politikoa eta gaia blindatua izateko zer egin behar den eta hiztun komunitatearen aldaera ikusita hauen motibazioa nola eragin galdetu zuen.

Baina aurretik, Topalabek egindako dokumentua "mami askoko" zela azpimarratu zuen. "Euskaltzaletasunaren oinarri landua da eta Ttakunen lanean hasi nintzen horrelako dokumentu bat egon izan balitz oso lagungarria izango nuen," adierazi zuen.

Eta solasaldiak aurrera egin ahala, entzuleek ere egin zituzten galderak: euskaltzaletasunarekin eta euskaldun berriei igorri beharreko mezuentzako irizpide bat, elebakar parametroetan pentsatzearen oztoppa, erdara-

ren erabilera edo euskara elkar-teak gazteak bazkide izatera nola bultzatu.

Iñaki Martínez de Lunak "guztiaren gakoia euskararen etorkizunerako zer nahi dugun definitzean datza", "planteamendu orokor bat behar da", "euskara guztiontzat interesgarria izan behar du", "bakoitzak normalizazioaren bere irakurketa du", "euskarari balio pragmatikoa eman behar zaio", "euskararen makulua zientzia izan daiteke", "hizkuntzak kudeatzen jakin behar da" edo "erdara behar denean erabili daiteke" erantzun zuen.

Jasoneren hitzetan, "euskarari buruz hitz egitean talde txiki batek ulertzen du bakarrik, besteentzat ulergaitza da. Gizartearekin konektatu behar da", "gizarte mugimenduak blindatzea probokatu beharko luke" edo "elkar-teetan parte-hartze formula berriak bilatu behar dira. Gizartera egokitu behar da jarduna."

Egin iezaiezu  
SCHOOL VISUAL TEST-a  
zure haurrei

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA  
EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

www.multipopticasgipuzkoa.com



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE

MULTIÓPTICAS  
lehen zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



**Unai Muñoa**  
"Diskurtsioak"

Arzoiaren bideak, nekarazteaz batera, arriskuan jartzen gaitu, inguruko epaiak gupida gabe kondenuatu baikaitzake. Asko dira moralaren bitartez kate motzean lotu nahi gaituzten ideologiak, eta "diskurtsio" batean dagokigun gidoitik kanpo bagabiltza, orduan komeriak! Sarri gutxien axola baitu egia...

Eztabaidak hausnarketa dakar, hausnarketak norabideak, norabideak esperientzia, esperientziak emaitza, emaitzak eztabaida, eztabaidak hausnarketa, hausnarketak norabidea ... "Caminante no hay camino, se hace camino al andar". Horrela garatzen dugu, hazi eta hezi egiten gara, ikasi egiten dugu. Orduan? Zergatik ez diegu inguruko ekibokatzeko aukera ematen? Ez al dugu oker irizteko eskubiderik? Horrenbesteko eragina al du norberaren iritzia? ... edukiz bete ditzagun askatasun irrintziak!

Neronek hainbatetan aldatu dut pentsaera zein jokaera nire ibiliaren joanean, baina ideologia eta arzoia botere harreman bilakatzen direnean ... disidentzia oso garesti ordaindu genezake. Horregatik aldarrikatzen dut oker pentsatzeko eskubidea, "diskurtsiotik" iritzi trukaketara igaro gaitezen, ideaz idea. Inor baztertzeko eta epaitzeko premiarik gabe. Kontra baino, norbera berearen alde.

Ez naiz "guayismoaren" ahotik ari, eta ez nator inoren haserrea goxatzeko kontu kontari. Norberak berea! Sarri, ordea, esaten duguna baino, isiltzen duguna izaten da interesgarri.

Ez dut onartzen inor zapaltzen duen usterik, ez eta besteen gaintetik ezarri nahi den ideologiarik ere. Baina, benetan iritzi librearen aldeko apustua egiten badugu, ikuskera guztiei lekua eman beharko diegu. Okindegiko sartu-irtenean agurrik ukatu gabe, alegia. Egiak bai baitaki gezur bihurtzen eta gezurak egia.

Zorion agurrak



**Mario**  
Zorionak txapeldun! Familiaren partetik !! Muxu pottolo! Asko maite zaitugu



**Olaia**  
Zorionak politta!! Hamar muxu erraldoi amona, aita eta amaren partetik.



**Aner**  
Zorionak zure zazpigarren untebetetzean. Muxu pottolo Malenen partez



**Kenai**  
Zorionak Kenai. 9 urte, gizontxo bihurtu zara!! Asko maite zaitugu! Ama, Miguel eta Alex.



**Ekaitz**  
Zorionak zure seigarren untebetetzean. Txokolatzeko muxuak. Manexen partez.



**Andrea**  
Zorionak Andrea! 17 muxu handi familiaren partetik! Primeran ospatu!



**Oihane**  
Zorionak guapetona!!! Hamarkada zoragarria oparitu diguzu... ondo pasa eta primeran ospatu!!!



**Amaia**  
Zorionak korrikalari! Egun zoriontsua pasa dezazula. Muxu eta opari asko zuretzat. Zure laguna guztien partez. Maite zaitugu



**Xabi**  
Zorionak hacker!! Ondo pasa zure egunean!! Ttakuneko lan-kideen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Garaje marra berria alokatzen da topo geltokiaren parean, 11m2 ditu. 687 271 288

Lan-eskaria

- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko eskaintzen naiz. Esperientzia daukat. Urko, 622 219 175
- Garbiketa edo zaintza lana asteburuetan, gau eta arratsaldeak. Berehala hasteko prest. 639 740 900
- Garbiketa edo zaintzan lan egiteko prest interna zein externa moduan eta asteburuetan. Berehala hasteko pret. Erreferentziak ditut. 639 089 138
- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintze-

ko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 931 026

Bestelakoak

- Irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko Lehen Hezkuntza eta DBH-ko lehen zikloan. Maialen: 626 652 224
- Kantu modernoko irakasle baten bila nabil: nirekin harremanetan jartzeko idatzi email honetara: mikelgnieto@gmail.com
- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza eta DBH. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakiak, 943 376 888 / 646 645 445 (Maria)

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Hanna Sofia Whittaker Villarreal, urriaren 7an

Heriotzak

- Izaskun Etxeberria Sarasola, urriaren 10ean, 47 urte zituela.
- M<sup>a</sup> Luisa Calle Perez, urriaren 9an, 72 urte zituela.
- Pedro M<sup>a</sup> Ayerdi Bengoa, urriaren 9an, 81 urte zituela.
- Valentin Del Molino Gomez, urriaren 7an, 69 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 16</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 17</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Igandea, 18</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Astelehena, 19</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Asteartea, 20</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 21</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 22</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Ostirala, 23</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Larunbata, 24</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Igandea, 25</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Astelehena, 26</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteartea, 27</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Asteazkena, 28</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Osteguna, 29</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529


**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

**Erredakzioa:**  
Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**publizitatea@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Laso, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguroola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA

# Herriko 131 garaje alokairuan

Ikasturte honetako bigarren udalbatzara egin zuten alderdiek astearte arratsaldean

Mamitsua izan zen ikasturte honetako bigarren ohiko udalbatzara. Besteak beste, Okendoko, Tajamarreko eta Beko Errotako 131 garaje alokairuan ateratzeko pleguak Ogasun Batzordean onartuak izan zirela jakin zuen udalbatzarrak. Horrez gain, Atsobakarreko egoitzaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin beharrezkoak diren bilera guztiak egiteko konpromisoa hartu zuten eta ITA gardentasuneko emaitzak hobetzeko ere bai.

## TXINTXARRI

Herriko 131 garaje alokairuan ateratzeko beste urrats bat eman du Lasarte-Oriako Udalbatzarrak. Ogasun Batzordea bildu eta pleguak onartu zituen; horren berri eman zien Jesus Zaballos alkateak asteartean Udalbatzarreko kideei.

Zehaztu zuen baita ere herritarrek 60 eta 90 euro artean ordaindu beharko dutela garajeengatik, duten tainaren arabera. Garaje horiek nori alokatu erabakitzeke, puntuazio sistema bat prestatuko du Udalak.

## Atsobakar egoitza

Atsobakar egoitzaren eskumen aldaketa izan zen udalbatzarreko protagonistetako bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu behar duenaren zalantzarik ez dute alderdi politikoek, baina ikuspuntu desberdinak dauzkate.

PSE-EEk eta LOAD alderdiek mozio bateratua aurkez-

tu zuten. Zehaztu zuten Diputazioarekin beharrezko bilerak burutu behar zirela, baina eskumenak aldatzeko akordio batera iritsi ezean epaitegietara joateko borondatea agertu zuten. Arkaitz Naya LOADren bozeramaileak nabarmendu zuen "denek eskutik helduta" joan behar dutela Aldundiari "presio" egitera.

EAJ ez zen ados horrekin. Bozeramaile jeltzalea den Estitxu Alkorta hartu zuen hitza, adierazteko bide judiciala ez dela negoziatzeko "aukera onena" eta Diputazioarekin batera egin behar duela lan Udalak. "Adostu behar den lehenengo gauza da zer nolako erresidentzia eredu nahi dugun. Aldundiak hartuko du egoitza eta ez du langilerik kaleratuko".

EH Bilduren aburuz, epaitegietara joateak "presio politikoa" kenduko lioke gaiari: "Epaileak erabaki dezala, eta bitartean denok lasai. Gainera, Diputazioak ditu irabazte-



Zenbait herritar gerturatu ziren astearte arratsaldean pleno aretora, udalbatzara zuzenean jarraituz.

ko aukera gehienak; ondo gordeta dute euren bizkarrak", adierazi zuen Gorka Lizarragak. Atsobakarreko langileak babestu beharra ere azpimarratu zuen zinegotziak.

Lourdes Acevedo Gizarte Politiketako zinegotziak (PSE-EE) azaldu zuen "negoziatzeko borondatea" dutela udal gobernuak eta alkateak, baina Aldundiaren teiltuan dagoela pilota. "Hitz egingo dugu, biltzeko borondatea badugu, baina ez gara akordio batera iritsiko edozein prezioan. Langileria errespetatu beharko du Aldundiak".

Mozioa aurrera atera zen, 10 zinegotzik bozkatu baituzten alde. Ez zen berdina gar-

tatu gai horren inguruan EH Bilduk aurkeztu zuen emendekin. Aurreko legealdian sinatzekoa zen akordioa "bere horretan" onartzea eskatzen zion legealdi berriko Aldundiari baina Udalbatzarrak ez zuen babestu.

## Beste hainbat gai

Aipatutakoek gain, beste gai batzuk ere izan zituzten hizpide Udalbatzarreko kideek.

Transparencia Internacional Españak Udalaren web orrialdea ikuskatu zuen irailan eta emaitzak ebatzi zuen gardentasunaren alorrean hobetzeko gauza asko dituela udaletxeak. Etorkizunean alor hori lantzea adostu zuen.

Jesus Zaballos alkatea FEMPEko kide izendatua izanari buruz ere aritu ziren asteartean; alkateak azaldu zuen ez zekiela Lasarte-Oria jada ez zegoela erakunde eta erakundeak berak deituta joan zela bilerara.

Era berean, Pello Gibelalde ADEGIko lehendakariak Euskal Herriko gazteen inguruan egindako adierazpenak arbuizatzea adostu zuten.

EAJk adierazi zuen Estitxu Alkorta izango dela Euskara Batzordeko ordezkaria.

Taxien datorren urteko hiri-tarifak onartu zituen Udalbatzarrak, baita Atsobakarren araudia eta zenbait akta eta txosten ere.

## Solaskide ikasturte berria hasi da

Ikasturte berriari indarrez ekiteko, Ttakunek Solaskide programan parte hartzen duten kideekin afaria egin zuen. Honetan euskaldun egitasmoan parte hartzen duten euskaldun berri eta zaharretako batzuk izan ziren. Herrian guztira 100 bat lagun inguru dira euskaraz hitz egiteko elkartzen direnak talde ezberdinetan. Irailean zabaldu zen honetan izena emateko epea baina aukera ikasturte osoan zehar dagoela azpimarratu nahi dute sustatzaileek.

Solaskide izateko hainbat irizpide finkatu dira. Horrela izanda, euskaltegietan 4. eta 5. mailetan hau da, euskaraz harremanatzeko gai direnek edo maila altuagoa duten ikasleek parte hartu dezakete ekimen honetan. Baina euskaraz hitz egin eta euskaltegietan ez dagoen jendea ere ongi-etorria da. Izan ere, bada



Arrieskalleta elkartean egin zuten afaria.

jendea bere euskara maila hobetzeko beharra duena eta aukerarik ez duena inguruan euskaldunak ez daukalako adibidez. Honetaz gain, urteroko deia egiten zaie euskaldun zaharrei. Euskaldun berriei bideak zabalitzeko prest dauden bidelagunak behar dira.

Azalpenak edo informazio

gehiago eskuratzeko, solaskide programako koordinatzailearekin harremanetan jar daiteke Ttakun elkartera hurbilduz, [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) helbidean edo 943 371 448 zenbakira deituz. [www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus) helbidean ere aurki daitezke Euskal Herrian zabalitzen den egitasmoaren inguruko zehaztasunak.

## Merkataritza

Aterpeko deskontu txartelak

Aterpea Merkatarik elkarrekin ibilbide neurtuan parte hartu eta Aterpeko deskontu txartelak eskuratu zituzten pertsonen gogoratu nahi die hauek erabili ahal izango direla urriaren 31a baino lehen. Beti ere, egindako erosketak bale horien balioaren berdinak edo altuagoak izanda.

## JAIK

Sorgin Jaiak prestatzeko bilera gaur Xirimirin

Jai magikoak dira Sorgin Jaiak, baina ekaina bukaerako trukoa ongi atera dadin hainbat hilabete lehenago hasten dira herriko sorginak lanean. Gaur egingo dute lehenengo bilera, datorren urteko festak prestatzeko aldera. 18:00etan bilduko dira Xirimirin, eta herritarrek bertara joatera animatzen dituzte antolatzaileek. Herriko jai alternatiboek 15 urte beteko dituzte datorren urtean.

## MUSIKA

SuBerriren kontzertua 24ean

SuBerri akordeoi orkestrak bazkideentzako kontzertua eskainiko du urriaren 24ean San Pedro elizan. Kontzertua 19:00etan hasiko da, mezaren ondoren eta bazkideei eskainitakoa izan arren, herritarrek ere dute aukera honetara gerturatzeko.



# Erabilera tresnez hornitua d

*Egitasmo interesgarri askoak ditugu eskualdean, euskararen erabilera sustatzeko*

*Mintzalagun, Mintzanet, Zilegi Eskolak, Banaiz Bagara Elkarteak aisialdian eta lan munduan sustaturiko prestakuntza saioak... Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarrok ez dugu aitzakiarik euskara ahotan ez hartzeko. Baliabide faltagatik ez da izango behintzat. Tresnak baditugu, denak ere euskararen erabilera sustatzeko ezinbestekoak, Buruntzaldea euskaldundu nahi badugu.*

## MINTZALAGUN

Euskararen erabilera sustatzeko tresna ezin baliagarriagoa. Astean behin kafe bat hartu, paseatu, zaletasunen bat partekatze gogoia izan edota antzeko planen bat egiteko agendan tartetxo bat egitea aski da. Euskaraz aritzea da bete beharreko baldintza bakarra.

Mintzalagunen parte hartzeko euskaltegi edo euskara taldeetara gerturatu eta izena eman behar da lehenik. Bilguneotan aipatu egitasmoan apuntatzen diren lagunen artean osatzen dira mintzapraktika saioetarako taldeak gero. Hortik aurrera, taldeak guztiz autonomoak dira. Hau da, mintzalagun talde bakoitzak erabakitzen du asteko ze egunetan, noiz, non eta zertarako bildu. Izan daiteke mahai baten bueltan tertulian aritzeko, ibilian asteko bizipenak partekatze, ekitaldiren batera gerturatzeko... Edozer izanda ere mintzagaia, komunikatzeko hizkuntzak euskara behar du izan.

Talde txikiak izaten dira, guztira 3-6 bidelari eta bidelagunez osaturikoak. Bai, bidelari eta bidelagunez ari gara. Termino hauek argitze aldera; bidelariak, euskara ikasi edo hobetzen ari direnak izendatzeko baliatzen da egun. Eta bidelagunak ahotan hartzerakoan, "euskaldun zaharrez" hitz egiten ari gara. Terminoak argituta, taldekide kopuru zehatzak izaten ditu mintzalagunak; bidelagun bat edo bi eta 2-4 bidelari osatu daitezke.

Kontzeptu eta zenbakiotatik kanpo, anitzak dira mintzalagun taldeak. Euskaltegiko ikasleak izan daitezke, edo ez. Behar desberdinak dituzten bidelariak parte hartzen dute egitasmo honetan. Izan daiteke "euskara ikaslea, ingurune euskaldunik ez duena, edo ingurune euskalduna izan bai, baina euskaraz hitz egiten hasia gogorra egiten zaiona", Lasarte-Oriako Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegiatiko arduradun Olatz Urdanpilletak azaldu digunez.



Mintzalagun talde bat, Igartubeiti baserriari eginiko bistan. "Aipamen berezia merezi dute bolondres lanetan jarduten duten lagunek edo euskaldun zaharrek".

*"Ondo hitz egitea baino, helburua hitz egitea da. Mintzalagunekin helburu hori betetzen da eta oso lagungarria da. Ikasleei beti esaten diegu, klasean egiten dena oso garrantzitsua dela, baina hortik kanpo egiten dena are garrantzitsuagoa" Olatz Urdanpilleta*

### Konfidantza gunea

Guztientzat Mintzalagun euskaraz lasaitasunez aritzeko gunea da. "Lagundu egiten du. Ziurtasuna ematen du. Euskaraz ez dakienari, lehen pausoa egiten errazten dio", dio Urdanpilletak. Mintzatzeko gutxieneko maila bat eskatzen zaio bidelariari; B1 maila.

Gainerakoan, halako esperientzietan parte hartzen duten "denek helburu bera dute, euskara. Zer kontatzen den gutxienekoa da". Nahiz euskara ahotan hartuz partekatzen duten horrek taldea

lotzen duen. Hain zuzen, euskara erabiltzeko bildu ohi diren taldeok jorratzen duten ibilbidea ikustekoa izaten da maiz. Kasu batean baino gehiagotan, hasieran euskarak lotzen ditu soilik. Euskaraz aritzeko gogoak, beharrak. Talde kideen arteko harrema-

nak estutzen joan ahala, Urdanpilletaren esanetan, "talde dezente lagun koadrilan bihurtzen dira. Batzuk urte asko daramatzate". Badi-ra euskaltegia utzi arren, gerora ere Mintzalagunen jarraitzen dutenak.

### Bidelagunek, "emandakoa baino gehiago jasotzen dute"

Euskaltegitik begi onez ikusten dute mintzalagun egitasmoa. AEK-ko kidearen esanetan, "izugarri eskertzen da. Helburua ondo hitz egitea izan daiteke, baina benetan hitz egitea da. Mintzalagunekin helburu hori betetzen da eta oso lagungarria da. Ikasleei beti esaten diegu, klasean egiten dena oso garrantzitsua dela, baina hortik kanpo egiten dena are garrantzitsuagoa".

Klasean euskalduntzeko eginiko lanketan sakontzeko, saioetan prestaturikoa hortik kanpo erabiltzeko, "euskaldun izatearen helbururantz oso lagungarria" da benetan. Elkar elikatze bat ematen da mintzalagunen artean. Euskara ikasten ari direnek, klaseko mintzalagun egitasmoan praktikan jarduten dute, eta mintzapraktika saio horretan erabilitakoak euskaltegian aurrerapausoak egiteko balio die ikasleei.


Aipamen berezia merezi dute baita noski, bolondres lanetan jarduten duten bidelagun edo "euskaldun zaharrek". Hasten direnek segitzen dute, esperientzia positiboa beraz. "Euskalduna izanda, hasiera batean egitasmo honetatik jaso dezakeenak ez dirudi erakargarria. Baina parte hartzen dutenek emandakoa baino gehiago jasotzen dutela diote. Esker ona jasotzen dute. Irakasle gisa dakit zer nolako poza ematen duen, gutxi edo ia batera hitz egiten ez zuen batek pixkanaka euskaraz geroz eta hobeto eta gehiago hitz egiten duela ikustek" dio Urdanpilletak. Argitze aldera; bidelagunak bolondresak izaten dira gehienetan, ez irakasleak. Bidelariari mintzapraktika saioetan sortzen zaizkion zalantzak euskaltegian argitzen zaizkio gero.

## Mintzanet, Mintzalagun Internetez

Gugandik gertu edo gurrin, edozein lekutan euskaraz aritu nahi dutenen artean elkar komunikatzeko beste tresna bat; hainbat erakunde eta eragileek sustaturiko Mintzanet proiektua. "Munduko edozer txokotan egonda ere euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen duen proposamen berrizalea. Internet bidez, noiznahi, euskaraz mintzaten diren

lagunak topatuko dituzu. Oso erraza da! Zeuk aukeratu duzu ordua edo zer gairi buruz hitz egin". Aurrez aurreko mintzapraktika saioetan bezala, bidelagun eta bidelariak arituko dira euskaraz. B1 maila beharko du bidelari edo "euskaldun berriak".

Informazio gehiago: [mintzanet.net](http://mintzanet.net).



"Munduko edozein txokotan egonda ere, euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen du".

# lago euskara Buruntzaldean

## BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Jatorri ezberdinetako herritarrekin lan egiten dute. Euskaraz bizi ahal izateko tresnak eskaini nahi dizkiete, sarri gure artera etorri berriak izan eta ez hizkuntza, ezta euskal giroa ere ezagutzen ez duten lagunei. Aisialdian hasi ziren eragiten duela sei urte, baina gerora eta dagoen eskaerari erantzun nahian, lan mundua eta langileak euskalduntzeko ahaleaginean dabil Banaiz Bagara Elkartea. Elkarteko kide, Petra Elserrek dakartza zehaztasun gehiago lerrootan.

### Behar batetik sortu zenuten elkarte 2009an?

**Petra Elser:** Batez ere ikusi genuelako, nik neuk baita, ez dela hain erraza kanpotik etorzen garen pertsonak euskara ikasi edo zirkulu euskaldunetan sartzea. Printzipioz bide hori errazteko sortu zen. Elkarbizitza eta hizkuntza txertatzen dugu, zeren bereziki zaila da zirkulu euskaldunetan sartzea, bai hizkuntzagatik, aisialdiko ohiturengatik... Horregatik osatzen hasi ginen taldeak non jendea modu informal batean elkartzen zen, oinarrizko euskara ikasteko, gero euskaldunekin elkarteko. Aisialdi tartean, kantu eta dantza saioak antolatzen hasi ginen, euskara ikasi eta praktikatzen, eta euskaldunak ezagutzeko.

### Zuen lan esparrua zabala da. Lan munduan, lagun artean, kalean eragin nahi duzue?

Azken 5-6 urteetan batez ere aisialdian lan egin dugu. Buruntzaldean existitzen da gaur egun talde bat, bai aisialdian eta jendarteko harremanetan zentratua dagoena, Urnietan.



Hernanin eta Andoainen jada martxan da Euskaraplus proiektua. Petra Elserren esanetan, "jendearen erantzuna oso ona izan da. Oso ondo funtzionatu du, jendearengana lanbide orientatzailearen bidez iristen baikara".

*"Buruntzaldean existitzen da gaur egun talde bat, bai aisialdian eta jendarteko harremanetan zentratua dagoena, Urnietan. azken bi urteotan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea. Jendearentzat, baina batez ere hona lan egitera datozenentzat lanak baitu lehentasuna" Petra Elser*

Baina azken bi urteotan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea. Jendearentzat, baina batez ere hona lan egitera datozenentzat lanak baitu lehentasuna. Lanak beste gauza asko guztiz baldintzatzen ditu.

### Euskaraplus egitasmoaz ari zara?

Bai. Printzipioz bi herritan, Hernanin eta Andoainen jada martxan jarri dugu Euskaraplus proiektua. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Oso ondo funtzionatu du,

jendearengana lanbide orientatzailearen bidez iristen baikara.

### Enplegatzaile eta enplegatuen arteko zubi lana egiten duzue?

Ikastaro oso praktikoak ematen ditugu, laneko komunikazioa eta hizkuntza lantzeko. Denak dira laneko simulazioak; benetako tresnekin, benetako lan egoerak antzertzen ditugu. Batzuentzat errazagoa da hizkuntza modu honetan ikastea beste modu batean baino. Gero aztertzen

dugu zein enpresak edo zein enplegatzaileek eskatzen dituzten langile euskaldunak, euskaraz zerbait dakitenak, edo euskara ikasteko prest daudenak. Hizkuntzarekin jarrera positiboak dutenak alegia. Saiatzen gara zubi lana egiten, kontratatzailearen eta lana bilatzen ari direnen artean. Gure ikastaroetan parte hartu duten ikasleak gero lanpoltsa batean sartzen dira. Beraiekin harremanetan jartzen gara eta ateratzen diren lan eskaintzak bidaltzen dizkiegu. Jarraipen bat ere

egiten diegu lana bilatzeko prozesuan, eta baita ere, lana aurkituz gero lanean atera litekeen komunikazio egoerak lantzeko eta ikasten jarraitzeko. Enplegatzaileen aldetik ere izan ditugu dei batzuk. Tabernariak deitu digute. Lana bilatu duten bi pertsona ditugu; batek zaintza arloan familia batean lan egiten du. Eta beste batek taberna batean. Dei gehiago izan ditugu eta kurrikulum gehiago bidali ditugu. Hemendik aurrera erantzun gehiago izatea espero dugu. Enpresek gu ezagutu eta poliki-poliki erreferente batean bihurtzea, hori da asmoa.

### Aurtengo ikastaroak bukatu dituzue. Noizko saio gehiago?

Buruntzaldean aurtengoak bukatu da. Orain datorren urteko ikastaroak prestatzera goaz. Jende gehiagorengana heltzea espero dugu. Ikastaroez gain, euskara moduluak eskaintzen ditugu, 4 orduko tailerrak.

### Herriz herri zer egitasmo bideratu dituzue?

Urritik aurrera berriz martxan izango da Urnietan, euskara ikasteko talde ireki bat. Parte hartu ahal da bertan. Andoainen bi ikastaro egin ditugu; ostalaritza eta pertsonen zaintzaren ingurukoak. Hernanin 3 egin ditugu; pertsonen zaintza, ostalaritza eta metalgintza. Aurten Lasarten ez dugu talderik izan. Astigarragan eta Usurbilen orain arte inoiz ez dugu ikastarorik egin. Gure asmoa, datorren urteari begira, Euskaraplus proiektua Buruntzaldea osoan eskaintzen saiatzea da.

### Informazio gehiago:

[euskaraplus.eus](http://euskaraplus.eus)

Twitter: @banaiga

Facebook: Banaiz Bagara

## ZILEGI ESKOLAK

"Euskalduntze prozesua eta alfabetatzea modu naturalean lantzeko saioak" ere badira Buruntzaldean; Hernanialdeko, hau da, Astigarraga eta Hernaniko AEK euskaltegiek eskaintzen dituzten zilegi eskolak. "Herriko euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak elkarrekin arituko diren saioak dira: historia, sexualitatea, eskulanak, sukaldaritza, osasuna, jolasak, landareak, masajea, filosofia, sendabelarrak... Bertan parte

hartzeko interesa besterik ez da behar. Ez dira hitzaldiak, saio dinamikoak baizik, eta partaideek eztabaidatu, hausnartu, landu, sortu...eta elkarreginez euskara landu eta gaiei buruz asko ikasteko aukera izango dute". Saio motibagarriak izaten dira ikasleentzat.

### Informazio gehiago:

607 59 28 64 (Hernani)

607 61 06 87 (Astigarraga)

[zilegieskola.blogspot.com.es](http://zilegieskola.blogspot.com.es)

[zilegieskola@aek.org](mailto:zilegieskola@aek.org)

## Informazio gehiagorako, euskara zerbitzuetara jo

### Andoaingo Euskara Zerbitzua:

Goiko Plaza z/g 20140 Andoain

943 300 831

[euskarazerbitzua@andoain.eus](mailto:euskarazerbitzua@andoain.eus)

### Hernaniko Euskara Zerbitzua:

Gudarien plaza 1, 20120 Hernani

943 337 029

[euskara@hernani.eus](mailto:euskara@hernani.eus)

### Urnietako Euskara Zerbitzua:

San Juan z/g, 20130 Urnieta

943 008 033

[euskara@urnieta.eus](mailto:euskara@urnieta.eus)

### Astigarragako Euskara Zerbitzua:

Foru Enparantza 13.20115 Astigarraga

943 335 064

[au.kultura@astigarraga.net](mailto:au.kultura@astigarraga.net)

### Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua:

Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria

943 376 184

[euskara@lasarte-oria.eus](mailto:euskara@lasarte-oria.eus)

### Usurbilgo Euskara Zerbitzua:

Irazu kalea, 20170 Usurbil

943 371 999

[euskara@usurbil.eus](mailto:euskara@usurbil.eus)

Bailarako euskararen ataria: [euskara.buruntzaldea.eus](http://euskara.buruntzaldea.eus)

## LABURRAK.-

## Jardunaldi biribila herriko errugbi taldeentzat

Hiru norgehiagoka, beste hainbeste garaipen. Borobila izan da asteburua Beltzak errugbi taldeentzat. Euskal Ligako 2. mailako taldeak eta 16 zein 18 urte azpikoek jokatu dute, Igorren eta Logroñon hurrenez hurren. Ohorezko B mailako taldeak berriz, atsedean hartzeko baliatu du asteburua, ez baitute jardunaldirik eduki.

ZRT Beltzak taldeak ezin hobeto ekin dio Euskal Ligako 2. mailari, bi norgehiagokatik bi irabazi baititu. Igorra (Bizkaia) joan ziren larunbatean, Arratiko Zekorrek taldearen aurka indarrak neurtzera. Lehiatua izan zen neurketa, borrokatua; gogotik izerditu zuten Beltzak taldekoek garaipena erdiesteko. 10-24 gailendu ziren azkenean, 4 entsegu eginez. Beñat Arroyo herritarrek egin zuen horietako bat.

Ander eta Xabier Rekondo, Julen Aristorena, Oihan Corchero eta David Vega lasarteoritarrek ere jokatu zuten larunbatean.

Ohi moduan, bi taldeko jokalariek eta entrenatzaileak hirugarren denbora egiteko elkartu ziren partidaren amaieran, eta indarrak berreskuratzeaz gain Errugbiko Munduko txapelketako Australia-Gales neurketa ikusi zuten.

Bestalde, Errioxan izan ziren 16 eta 18 urtez azpiko bi taldeak; Marzola RC taldearen aurka neurtu zituzten indarrak biek, Logroñon. 16 urtez azpikoek 0-55 irabazi zuten eta 0-52 18 urtez azpikoek. Norgehiagoken ostean hirugarren denbora ospatzeko elkartu ziren bi taldeak eta Beltzak-eko kideek etxeko taldekoek egindako harrera ona nabarmendu dute.

## Raul Gomez Margallo herritarra bosgarren 3 hondartzetako krosetan

Ordezkaritza zabala izan zuen Lasarte-Oriak joan den astean, 3 hondartzetako kros ezagunean. Guztira 86 lasterkarik lortu zuten helmuga-lerroa zeharkatzea. Horietako askok datorren asteko Lasarte-Oria Bai! krosa prestatzeko baliatuko zuten lasterketa ziur asko. Herritarren artean azkarrena Raul Gomez Margallo izan zen; meritu handiko 5. postua eskuratu zuen atletak. Erritmo benetan bizkorra eraman zuen lasterkariak, kilometroa 3 minutu eta 12 segundotan eginez. Santurtziko El Hassan Oubadik irabazi zuen lasterketa eta hark baino minutu bat eta 48 segundo gehiago behar izan zituen Margallok 10 kilometroko ibilbidea burutzeko.

Antonio Mazo herritarrek lehenengo 100 lasterkarien artean sailkatzea lortu zuen, 53. postuan zehazkatuz helmuga. Hortxe ibili ziren Jon Altuna eta Iraitz Pikabea ere, langa hori zeharkatzeko zorian; 101. eta 114. izan ziren hurrenez hurren.

## JUDOAK.-

## LOKEko judoek ekin diote sasoiari

Irunen eta Vigon aritu ziren senior eta kadeteak asteburuan

**LOKEko judoek hilabete daramate Kiroldegiko tatamian entrenatzen; beste hiri batzuetakotara lehiatzera joan beharko dute orain, aurreko asteburuan ekin baitzioten 2015-2016 denboraldiari. Vigon eta Irunen izan ziren kadeteak eta seniorrak.**

## TXINTXARRI

Entrenatzea funtsezkoa da denboraldiari behar bezala egiteko, baina kompetitza eman ohi die kirolarietako motibazio gehigarri hori.

Egoera horretan daude orain LOKEko judoak aritzen direnak, pasa den asteburuan ekin baitzioten lehiatzeari. Kadeteak Vigon (Galizia) joan ziren eta seniorrak Irunera, Super Kopan aritzera.

“Desberdinak” izan dira sentazioak bi txapelketetan, Gorka Aristegi prestatzailearen aburuz: “Ander Garrido eta Yeray Mendibe kadeteek lehen urtea dute kategorian, eta nabaritu dute aldaketa. Espainiako Super Kopan aritu dira oso maila altuan, eta ikasteko balioko die. Urduri zeuden, baina etorkizunera begira ongi etorriko zaie Galiziako esperientzia”.



Astelehen, asteazken eta ostiraletan entrenatzen dute LOKEko judoek, Kiroldegian.

Seniorrak Irungo Super Kopan aritu ziren lehen. Gustura da Aristegi LOKEko mutilek bertan erakutsitako mailarekin: “Kalitate handiko judoak egin zuten; emaitza besterik falta izan zitzaigun. Dena dela, hilabete eskas daramagu entrenatzen eta hori kontutan hartuta espero baino hobeto ibili dira”. Asier Sagasti, Esteban Martinez eta Josu Olmos aritu ziren Irunen.

## Asturias, Salamanca...

Judoek ez dute kompetiziorik asteburu honetan. Datorrenean bai, ordea: hilaren 24an Asturiasera joango dira junior eta seniorrak. Dominak kolokartzeko “aukera dezente” edukiko dituzte, Aristegik zehaztu moduan.

Salamanca joango dira juniorrak 25ean, Espainiako

Kopan aritzera. Txapelketa “zailagoa” izango da hori LOKEko prestatzailearen hitzetan.

Azaroaren 1ean Avilesera joango da Jesus Curiel infanti-la, bertako Super Kopan parte hartzera. Handik astebetera Zaragozan ariko dira judokak eta Amurrión (Bizkaia) 14an, juniorrak hain zuten. Valladolidera joango dira kompetitzera seniorrak 28an, azaroko egutegiari amaiera emanez.

Abendua iristearekin batera, hitzordu gehiago: 5ean eta 6ean Burgosera joango dira infantilak eta kadeteak berriz Irunera 12an.

Kompetitzeko gogor entrenatu behar, ordea; “gustura” aritzen dira judokak Aristegiren esanetan: “Klaseak jendez beteta ditugu, benetan atseginna da horrela entrenatzea”.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 17

Michelin, 9:15ean

Ostadar SKT - Oiartzun KE  
Kadeteen Ohorezko maila,  
bosgarren jardunaldia.

Michelin, 11:15ean

Ostadar SKT - Hernani CD  
Infantilen Ohorezko maila,  
hirugarren jardunaldia.

Zarautz, Asti Txiki, 14:00etan

Alle Punta FK - Texas Lasartearra CD  
Erregionalen I. maila,  
bosgarren jardunaldia.

Michelin, 14:15ean

Ostadar SKT - Intxurre KKE  
Kadeteen I. maila,  
bosgarren jardunaldia.

Michelin, 15:45ean

Ostadar SKT - Tolosa CF  
Emakumezkoen Lurralde maila,  
laugarren jardunaldia.

Andoain, Ubitarte, 16:00etan

Euskalduna SD - Ostadar SKT  
Ohorezko Erregionala,  
seigarren jardunaldia.

Michelin, 17:30ean

Ostadar SKT - Euskalduna SD  
Erregionalen I. maila,  
bosgarren jardunaldia.

Andoain, Ubitarte, 17:45ean

Euskalduna SD - Ostadar SKT  
Jubenilen I. maila,  
bosgarren jardunaldia.

Igandea 18

Oiartzun, Karla Lekuona, 11:30etan

Oiartzun KE - Ostadar SKT  
Jubenilen Ohorezko maila,  
bosgarren jardunaldia.

Michelin, 14:30ean

Ostadar SKT - Urnieta KE  
Infantil Txikiak,  
hirugarren jardunaldia.

## ERRUGBIA

Igandea 18

Michelin, 9:45ean

Lasarte-Oriako Seven txapelketa  
Beltzak Errugbi eskolako 14 urtez azpiko  
jokalariek Rugby Seven txapelketa jokatu  
dute; Bera Bera, Atletico San Sebastian,  
Ordizia eta Gaztedi taldeek ere hartuko  
dute parte.

Plentzia, 12:00etan

Uribealdea - ZRT  
Seniorren Ohorezko B maila,  
laugarren jardunaldia.

Michelin, 12:45ean

ZRT - Kanpazar Arrasate  
Seniorren Euskal Ligako 2. maila,  
hirugarren jardunaldia.

## PILOTA

Ostirala 16

Oñatiko Zubikoa pilotalekua, 11:30etan

Aloña Mendi - Intza KE  
Gipuzkoako jubenen II. maila.

Larunbata 17

Michelingo pilotalekua, 16:30ean

Intza KE - Aurrera Saiatz 2  
Gipuzkoako nagusien II. maila.

## SASKIBALOA

Larunbata 17

Donostia, Benta Berri, 16:00etan

Añorga - Ostadar SKT  
Partizipazioko kadeteak,  
hirugarren jardunaldia.

Donostia, Altxa, 20:00etan

Easo - Ostadar SKT  
Senior probintzialeko 3. maila,  
hirugarren jardunaldia.

Igandea 18

Kiroldegia, 9:30ean

Ostadar SKT - Bera Bera Gros  
Errendimenduko kadeteak,  
bosgarren jardunaldia.

Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Internacional  
Errendimenduko juniorrak,  
bosgarren jardunaldia.

Donostia, Altxa, 12:00etan

Askatuak - Ostadar SKT

Partizipazioko juniorrak,  
hirugarren jardunaldia.

## ARETO-FUTBOLA

Herriko areto- futbol txapelketako

bosgarren jardunaldia jokatu dute  
taldeek.

Ostirala 16

Michelingo kirol-gunea, 9:45ean

Txindoki - Ilargi

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Txoko - Trumoi

Larunbata 17

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Urdaneta HK - Izkiña

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Reformas Lagunak - Indaux

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

El Punto - Viña del Mar

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Kattagorri-Insauti - Also

## Agenda

Larunbata, Okendo plaza, 10:00etatik



### Euskal Jaia eta Topa Eguna

Egitarau zabala prestatu da Euskal Jaian 13:00etatik aurrera ekitaldiak Okendon nagusituko dira, besteak beste Okerra harria altxatzeko saiakera egingo dute Joseba Ostolaza eta Jokin Eizmendi harri jasotzaileek. Jarraian, Topa kolektiboa eta herri bazkariaren txanda izango da. Arratsaldean ere, ez da aspertzeko aukerarik izango.

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA

Larunbata 24, 18:00etan

Ados Teatroaren "Zapatila gorridun mutikoa" haur antzerkia 4 urtetik gorako ikusle ororentzat. Mutilei egitea gustatu ohi zaien gauzak egitea gustatzen ez zaion mutikoa da protagonista. Berak nahiago du mozo-rrotu, rock & roll izar baten modura abestea eta batez ere, dantzatzea. Urteak igarota, nerabe ameslari bihurtuko da, geroago heldu bat izango da, maitasuna ezagutuko du eta zahartzarora iritsiko da. Bidean, txakur berde baten edota monstruo arroxak baten modura sentituko da maiz. Munduan bere lekua aurkitzeko gai izango ez balitz bezala. Sarrera 3,80 euro.

### Lasarte-Oria

#### Zinea

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

"Los Minions 3D" filma ikusi ahal izango da haurrentzako zine atalean. Arrakasta handia izan du filmak. Minions-ak euren arrazaren desagertuari aurre egin beharko diote. Sarrera 3,80 euro.

Igandea, 19:30ean

"Vacaciones" filma helduen zine saioan. Honetan, familian denbora pasa eta harremanak sendotzeko, aitak Rusty Griswoldek familia guztia txikitzen egin zuen bidaiarekin errepikatzen eramango du. Opor hauek ezus-

tean harrapatuko ditu etxeak. Sarrera 5,50 euro.

Ostirala 23, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen zine forumean "Lore" filma ikusi ahal izango da. II. Mundu Gerra du ardatz film alemaniar honek. Lore protagonistak bere anai-arrebak gerratik urrundu nahiko ditu. Rachel Seiffert idazlearen 'El cuarto oscuro' eleberriaren adaptazioa da. Sarrera 5,50 euro.

Larunbata 24, 20:00etan

Helduen zine atalean "Ricki". Meryl Streep da honetan protagonista eta rock izarra izateko familia utzi ondoren, alaba laguntzera joaten den amaren papera egiten du. Sarrera 5,50 euro.

Igandea 25, 17:00etan

Haurrentzako zinean "Atrapa la bandera". Ilargira bidaiarekin duen gaztetxo talde baten abenturak kontatzen ditu filmak. Sarrera 3,80 euro.

Igandea 25, 19:30ean

Helduen zine atalean "Ricki" filma ikusi ahal izango da. Sarrera 5,50 euro.

### Ipuin kontalaria

MANUEL LEKUONA

Asteartea 20, 18:00etan

Herriko Kontukantoi bikotearekin ipuin kontaketa izango da haur liburutegian. Honakoa 6, 7 eta 8 urte arteko haurrentzat zuzenduta egongo da. Doan.



### Dantza

OKENDO PLAZA

Igandea 25, 18:00etan

Muxikoak dantzatzeko aukera izango da plazan. Iaz hasitako ekimenarekin jarraitzeko asmoa dute herriko Erketz, Kukuka eta Ttakuneko plaza dantzako kideek, dantza plazara berriz aterako dute. Horrela hilabetean behin eurekin dantzatzeko aukera izango da.

## Herritarren txokoa

#### 63an jaiotakoaren afaria

Aurten ere 63an jaiotakoaren afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.

Menua 36 eurokoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera. Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

#### Lasarte-Oriako misio taldearen ekintza bereziak

Haitiko Teothule Dumond apaizaren bisita dela eta herriko taldeak bilera antolatu du berarekin asteazkenean. 19:00etan izango da Brigitarren komentuan eta bertan hitz egingo du han egiten duen lanaz. Larunbatean berriz, elkartzeko afaria antolatuko da 20:30ean Arantzazuko Ama parrokiko gelan, eraikitzen ari den eskola berriarentzat dirua biltzeko.

#### 65ean jaiotakoaren afaria

1965ean jaiotakoaren afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

#### Saskibaloizaleentzat hitzordua asteartetan

Saskibaloia atsegin duten herritarrek badute aukera kirol horretan aritzeko talde federaturen batean egon gabe. Herritar talde bat astearte guztietan biltzen da Michelingo kirol-gunean, lagunartean saskibaloia partidak jokatuzko, 20:00etatik 22:00etara.

Interesa dutenek 676 02 64 24 telefonora deitu edo [elperryjmm@yahoo.es](mailto:elperryjmm@yahoo.es) helbidera idatzi beharko dute.

## Sarean



### Berria Astekaria aplikazio mugikorra

Argitalpen digital berri bat jarri du BERRIAk irakurleen eskuetan: Berria Astekaria aplikazio mugikorra. Asteko artikulua hautatuekin, hau da, irakurri gabe utzi ezin diren artikuluekin, osatutako bilduma da Berria Astekaria. App-a Google Play eta iTunes dendetan dago doan instalatzeko moduan, Android eta iOS gailuetarako.

Aplikazioa norberaren sakelako telefono edo tabletetan instalatuta, zenbaki berriak automatikoki kargatzen dira, astero, ostiral goizetan. Zenbaki berria prest dagoenean, erabiltzaileak push jakinarazpen bat jasoko du bere gailuan horren berri emanez. Nahi izanez gero, jakinarazpen horretatik zuzenean ireki ahal izango du aplikazioa, zenbaki berria irakurtzeko.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

# Iritsi dira Euskal Jaia eta Topa Eguna!!!

Herritar zein Euskal Herriko euskaltzaleek hamaika ekintzaz gozatu ahalko dute

**Aurtengo Euskal Jai berezia dugu. Larunbatean euskal giroa izango da nagusi Lasarte-Orian, baina euskaltzale-tasunaren bilgune ere izango da Topa Egunari esker. Euskal Herri osoko jendea hurbilduko da herrira. Euskal Jai eta Topa Eguneko egitarau bateratuaz gozatu ahalko dugu guztiok.**

**J**ai giroa izango da nagusi urriaren 17an Lasarte-Orian. Euskal Jaia egunaz aparte, Topa Eguna ere antolatatu da. Euskal Herriko hainbat txokoetatik gurera etorriko dira euskal komunitatean egiten den lana elkarbanatu eta Euskal Jai giroa bizitzera. Euskaltzale zein herritarrek egitarau bateratuaz gozatzeko aukera izango dute giro jatorrean.

## Kantu Jira Txikia

Goizean goiz dianak esnatuko du herrira.

11:00etan, Trukegunea irekiko da Villa Mirentxun. Nahi duenak euskararen erabilera sustatzeko Euskal Herrian egin diren 5 esperientzia eza-gutu ahalko ditu.

Ordu berean, iaz arrakasta izan zuen Kantu Jira Txikia egingo da.

Haur, gazte, zein helduek Zumaburuko Isla plazatik atera eta Okendo plazara egingo dute ibilbidea.

Geldiuneetan denen gustuko kantu eta dantzak izango dira.

## Okerra harria

Ongi etorri! ekitaldiaren barruan, kantua, dantza eta azken urteetan legez, Okerra harria aterako da plazara. Joseba Ostolaza eta Jokin Eizmendi harrijasotzaileek erakustaldia egin eta harri berezi hau jasotzen saiatuko dira.

Jarraian, Okendo plazan dauden herritar eta euskaltzaleek sagardoarekin topa egingo dute.

Eta 14:30ak aldera, paella gozoa dastatzeko aukera ere izango da.

## Kirola eta dantza

Bazkal ostean berriz, haur eta gaztetxoei zuzendutako tartea dago.

Lehenik herri-kirolak eta pilota izango dira Okendo plazan.

Txikienek txingak eraman, lokotsak bildu, zaku lasterketak edo sokatira egiteko aukera izango dute, baita Intza KE-ko lagunek prestatutako duten pilotaleku berezian pilotan jokatzeko ere.

Topa Eguneko ekitaldi nagusia egingo da ostean.



lazko Euskal Jai egunean herritarrak plazara atera ziren eta ederki egin zuten dantza. Aurten ere horrela izatea espero da.

Topa Egunaren zergatia azaltzeaz gain, hurrengo urtean antolatzailea izango den Atarrabiko kultur elkarteari testigua emango zaio.

Hau amaitzean, berriro ere etxeko txikien gozamenarako ekintza izango da. Plaza dantzan jarriko baitute Irrien Lagunen 'Ane eta piratek'.

Lasarte-Oriako elkarte eta talde ezberdinak pailazoan abestiak dantzatu eta kantatzera igoko dira oholtzara. Hala nola, 'Xalala, rikiki', 'Parabara' edo 'Epo ita ta ie' abestiak entzungo dira plazan.

Gorputzak astintzen jarraitzeko, 19:00etan Eztengiro

taldearen eskutik erromeria dago.

Bitartean kaleak girotzen 'Oiantxe in deu!' herriko txaranga izango da.

Azkenik, gose duenareztzat, triki poteoa eta pintxo potea izango dira herriko hainbat tabernatan.

## Euskal jantzia

Honetaz gain, euskal jantzia armairutik atera eta hautsa kentzeko eguna dela gogoratu dute Ttakun kultur elkarteko kideek. Era honetara, Euskal giroan murgiltzeko baserritarrez jantzita joatea gomendatzen diete herritar eta gonbidatuei.

## Tiketak eta oharra

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, gaur izango da bazkarirako tiketak erosteko azken eguna. Hauek Jalgi Kafe-Antzokian eta Ttakun Kultur Elkartean daude salgai 8 eurotan.

Honetaz gain, eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi nagusiak Loidi-Barrengo pilotalekuan egingo direla ere gogorarazten dute.

Azkenik, Ttakun Kultur elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak jai giroan parte hartu eta egitarauko ekintzetara hurbiltzeko gonbita egiten die herritar eta euskaltzaleei.

**EUSKAL  
JAI'A'15  
LASARTE-ORIA**

## Euskal Jai eta Topaeguneko egitarau bateratua

10:00etatik 11:00etara, Diana

11:00etatik 12:30era, Mugimenduko kideen esperientzien Trukegunea VILLA MIRENTXU

11:00etatik 13:00etara, Kantu Jira Txikia ZUMABURUTIK OKENDORA

13:00etan, Ongi etorri! ekitaldia OKENDO PLAZA

- Kantua
- Dantza
- Okerra Harria jasotzea
- Topa kolektiboa

14:30ean, Herri bazkaria OKENDO PLAZA

15:30etik 16:30era, Haur eta gaztetxoentzako jolasak OKENDO PLAZA

16:30ean, Topa Egunaren ekitaldi nagusia OKENDO PLAZA

17:00etan, Irrien Lagunen "Ane eta Piratak" ikuskizuna OKENDO PLAZA

18:30etik 19:00etara, Oiantxe in deu! Txaranga OKENDO PLAZA

19:00etatik 21:00etara, Erromeria "Eztengiro" taldearekin OKENDO PLAZA

20:00etatik aurrera, Triki poteoa eta pintxo potea

ABEND, ARKUPE, BUENETXEA, SANCHO, TRUMOI, YOLANDA TABERNA, TXANPA, ARTIZAR, GURE ETXEA, ILARGI, IÑAKI TABERNA, JALGI, INSAUSTI, AVENIDA

Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidi Barrengo frontoian izango dira

Bost esperientzia- 15 min. bakoitza:

### 1.- MINTZAKUADRILLAK

Getxon gazteekin martxan jarri den mintzakuadrilla ekimena azalduko dute.

### 2.- BERBA PROBAK LEHIAKETA

Txokolo euskara eta kultura-elkarteak antolatuta eta mungiarren eta inguruko herrien ekimenari esker, Berba Probak antolatzen dira. Herriko eta zonaldeko esakuneak eta bertsoak batzen dituen txapelketaren hamarretik gora edizio antolatuta dira.

### 3.- IGANDEAK JAI! GASTEIZEN

Euskararen familia transmisioa lantzeko eta Gasteizko familia euskaldunen arteko loturak trinkotzeko asmoz GEU elkarteak 'Igandeak jai! Familia giroan euskaraz' egitasmoa jarri zuen martxan 2013ko udazkenean.

### 4.- OinHERRI HERRI-HEZITZAILEEN SAREA

Haurren aisialdi partehartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzeko elkartu den taldea da OinHerri.

Aisia eredu berri baten proposamenarekin dator OinHerri.

### 5.- 3, 2, 1 GOGOETA PROZESUA; 3, 2, 1 JARDUN!!

Bergarako euskalgintzaren bilakaeraz eta egoeraz hausnartzeko une egokia izan zitekeela jabeturik bestetik, gogoeta prozesu bat abian jartzea erabaki zuen Jardun euskara elkarteak.